

“MITO, AZKEN PLANETA, IKASLEEI GEHIEN GUSTATU ZAIENA IZAN DA”



Orokieta Herri Eskola | Asun Muro | Palkak | Lehen Hezkuntza 2

Jokin Izarren ustez (Orokieta Herri Eskola), Kosmodisearen lehiaketa izaera leundu eta ebaluazio-sistema aldatu beharko litzateke.

Kosmodiseak aurrera egin ahala parte-hartze handiagoa izan dute ikasleek, edo, alderantziz, hasieran gogo handiz hasi eta ondoren hoztu egin dira?

Ez dira hoztu, ez. Alderantziz, azken planeta, Mito, da gehien gustatu zaiena.

Lehiaketaren egiturak ikasturtearen jarduna oztopatzen du edo elkarren osagarri dira?

Ondo antolatzen bazara, elkarren osagarri dira, nahiz eta batzuetan zertxobait itota ilbili gauza guztiak egiteko.

Sari baten bidez aitortuak izateko aukerak motibatzen al ditu ikasleak?

Bai, noski.

Eta irakasleak? Ikastetxea?

Baita ere, baina Kosmodisea ez lukeela txapelketa edo lehiaren kutsua hain markatuta izan behar pantsatzen dugu.

Zein izan da Kosmodisean bizitutako esperientziaren onena?

Ikasleentzat sarituak izatea eta Kursaalera joatea.

Zailtasun handienak noiz eta zergatik sortu dira?

Lana antolatzea, motibazioaren maila altua mantentzea eta saioak ondo aprobetxatzea.

Edizio hau eta aurrekoak ikusi ondoren, ekimen honetan parte hartzearen esperientziak zein ondorio ekarri dizkie ikasleei?

Adinduei buruzko hausnarketak egin dituzte. Etxeko nagusiei garrantzia eman behar zaiela ikusi dute. Horregatik gure lanaren izena: "Etxeko eguzkiak ez omen du epeltzen?"

Eta irakasleei?

Lan egokia egiten garela ikustea.

Zortzigarren Kosmodisean parte hartzeko prest zaudete?

Prinzipioz bai, behintzat murrizketek ez badute oztopatzen.

Ekimena hobetzeko ekarpenik egin nahi duzue?

Proposamen batzuk:

- Simulatzaile berria(k) ipintzea (posible izango balitz planeta bakoitzean bat)
- Ebaluazio sistema aldatzea. Betidanik dagoenaren "aurka" egon gara gure ikasleen mailarako erabiltzen diren atalak eta esamoldeak ez direla egokiak ikusten dugulako. Taldeak, gustuen arabera, sailkatzearekin nahikoa izan daiteke; hainbeste arrazoiak jartzea oso zaila eta mingarria izaten da. Pentsatzen dugu talde bakoitzak ahal izan duen guztia eta hobekien egin duela, eta ebaluazioan guk jarritako sailkapenak arrazoitzen ibili behar horrek asko kostatzen zaigu.
- Hiru planeten lanak baloratzeko puntuazioa BERDINA izan beharko zen, eta ez orain dauden bezalakoak.